



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ADINEKOAK
ETA HEDABIDEAK
BIZKAIAN



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

ESKER ONAK	4
SARRERA	5
TALDEAREN ERAKETA ETA LANEKO METODOLOGIA	8
DIAGNOSTIKOA, GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK	9
ADINEKOEK GIZARTE HEDABIDEETAN BETETZEN DUTEN EGINKIZUNA: KOMUNIKATZAILE LEZ DUTEN FUNTZIOA, BAI PROFESIONAL GISA, BAI KOLABORATZAILE GISA	
ADINEKOENTZAKO PRODUKTU ESPEZIFIKOAK: PROGRAMAZIOAREN ESPEZIALIZAZIOA EDO ADINEKOEN "ESTEREOTIPAZIOA"?	
ZAHARTZAROAREN GAINEKO IRUDIA: ZAHARTZAROAREN IRUDI POSITIBOA SUSTATZEA	
ADINEKOEK PARTE HARTZEN DUTEN JARDUEREN BERRI EMATEA HEDABIDEETAN (JARDUERAK ADINEKOENAK SOILIK IZAN ZEIN EZ) ETA ADINEKO JARDUEREN SUSTAPEN PUBLIKOA ADINEKOEN EUREN ALDETIK	
HEDABIDEETAN ERABILITAKO HIZKERA	
LABURPENA / DEKALOGOIA	17
EPE LABURRERAKO ETA ERTAINERAKO EKINTZA PLANA	19
BIBLIOGRAFIA	21

Esker onak Adinekoen Batzordeko eta
Komunikabideetako lan-taldean parte hartu duten
pertsonei:

Angel López	Onda Vasca.
Angel Zaldunbide	Secot.
Arantza rodriguez	Deia.
Cesar Coca	El Correo.
Cristina Heredia	Cadena Ser.
David Mejuto	Canal Bizkaia.
Enrique Campos	Radio Nervión eta Tele Bilbao.
Federico Merino	Radio Popular.
Felipe Zorrilla	Nagusilan.
Ismael Arnaiz	Hartu Emanak.
Marisa Luengo	Nagusiak.
Máximo García	Esperientzia gelak.
Pilar Oraindi	Nagusiak.
Urtzi Urrutikoetxea	Hamaika Telebista.
Andoni Rekagorri	Bizkaiko Foru Aldundia.
Imanol Zuloaga	Bizkaiko Foru Aldundia.
Aitor Urrutia	Bizkaiko Foru Aldundia.



SARRERA

XX. mendean, nabarmen aldatu dira zahartzea baldintzatzen duten egoera soziologikoak eta demografikoak. Haurren heriotzatasak jaisteak, munduaren populazioa inoiz baino gehiago hazteak eta bizi-esperantzen igoerak (ia bikoiztu egin da) biziaren iraupena luzarazi eta zahartzaroaren demokratizazioa eragin dute.

"Helduak pertsona ahul bihurtzen duen prozesua da zahartzea; izan ere, sistema fisiologiko gehien erreserbak behera egiten du eta ikaragarri areagotzen dira gaixotasun gehienak eta heriotza pairatzeko posibilitateak". Miller (1994). Horregatik, lorpena da pertsonok zahartzea. Gizarteak hala egiteak ohartarazi egin beharko gintuzke behinik behin. Gizarteak lanean jarraitu behar du gizakiok zahartzeari eutsi diezaiozun eta ahalik eta egoerarik onenean egin dezagun prozesu hori. Eta gizartea zahartzeak ez du esan nahi beti hala egingo duenik. Gizarte lez, Bizkaiko biztanleria zahartzen ez jarraitzeko beharrezko neurriak hartu behar ditugu.

Hala ere, bien bitartean, gizartean zahartzeari buruz dagoen irudiaren definizioan eragina dugun gizarte eragileok ezin dugu utzi zahartzaroa negatibotzat hartzea orain ere, ezta horren gaineko benetakoa ez den irudia ematea ere.

Bizkaian, gaur egun, gutxi gorabehera biztanleen %20 da 65 urtetik gorakoa. 2050erako zenbatespen demografikoen arabera, portzentaje hori %30etik gorakoa izango da. NBEk adierazi duenaren arabera, Espainiako Estatua munduko herrialderik zahartuena izango da, 60 urtetik gorako biztanleen %40 gutxi gorabehera.

Denok iritsi nahi dugu zahartzarora, baina inork ez du zaharra izan gura. Zergatik? Gizarte osoak lanean jardun be-



har du galdera horri erantzuna emateko, dimentsio eta maila guztietan. Haurtzaroan, gaztaroan, heldutasunera iristean, zahartzaroan... eragile guztiek hartu behar dute parte: adinekoen taldeek, gizarte erakundeek, politikariek, hedabideek, etab.

Ez dago argi noiz garen "adinekoak" ere, baina erretiroa hartzeko adinarekin parekatzen da, gure kasuan 65 urte inguruko adinarekin. Hala ere, adinekoak izateko garaia hasieratzat hartutako 65 urteko muga hori orain dela mende bat baino gehiago ezarri zen eta, beraz, ezin izan dezake esanahi bera orain eta mende bat lehenago. Datozen hamarkadetan ere ez dira esanahi berekoak izango.

Zahartzaroa, "edadismoa" eta lan-merkatua, dagoeneko, loturarik gabeko kontzeptuak dira gizartearen baitan. Gaur egun, zahartzaroa, orain dela mende bat eta lehenago ulertzen zen moduan, ez da era berean ulertzen jadanik. Zahartzaroa eta adinekoen mendekotasuna berdintzen ditugu gaur egun.

Hori dela-eta, zahartzea gaixotasuna ez den moduan (baina organismoak denboraren joan-etorriarekin dituen aldaketek gaixotasunak izateko posibilitateak igoazten ditu) Bizkaiko adinekoen taldeek eta Bizkaian diren hedabideek, gizartearen eragile aktibo gisa eta gizarteak Bizkaian zahartzaroari buruz duen irudia sortzeko dugun eta betetzen dugun erantzukizun handiagatik, batera egin behar dugu lan zahartzaroa positiboa izan dadin.

Horretarako, bat egiten dugu Nazio Batuek sustaturiko paradigma berriarekin, zahartze aktiboa deritzonarekin. Honek definitu da: "osasun, partaidetza eta segurtasunaren aldetik dauden aukerak hobetzeko prozesua, pertsonen, zahartu ahala, duten bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Banakoei nahiz biztanle taldeei aplikatzen zaie. Ongizate fisiko, sozial eta mentalerako duen ahalmena erabiltzea ahalbidetzen die pertsonen bizi-ziklo osoan, baita gizartean parte hartzea ere haien be-



harren, nahien eta gaitasunen arabera. Bien bitartean, babesu, segurtasuna eta zaintza egokiak ematen zaizkie laguntasunaren beharra dutenean (OME 2002).

Hortaz, zahartzaroa eta zahartzea banakoaren eta taldearen erantzukizuna dira, betiere bizi-zikloaren eremu osoan.

Zahartze aktiboa ez da adinekoentzako politika; ahalik eta egoerarik onenean adinekoak izatera iristeko politika da. Eta une horretara iritsitakoan, egoera horri eustea ahalik eta denborarik luzeenean.

Hiru dira zahartze aktiboaren zutabeak: osasuna, segurtasuna eta partaidetza. Nazio Batuek, oraintsu, beste zutabe bat ezarri dute zahartze aktiboan: ikaskuntza bizitza osoan. Lau zutabe horiek iraunkorrak izan daitezzen, belaunaldien arteko partaidetza behar da, halako moldez non pertsona guztiok izango baitugu partaidetza handia zahartze prozesuan.

Zahartze aktiboko modu horiek garatzeko, herri administrazioaren, gizarte eragileen eta adinekoen euren partaidetza lortu gura da.

Gizarte Hedabideek aldaketa prozesu honetan duten garrantziaz jabeturik, Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2010eko urrian onetsitako Zahartze Aktiboko Planean ezarritako jardueren barnean, talde bat hasi zen lanean, eta horren xedea zen adinekoek hedabideetan betetzen duten eginkizunari buruzko diagnostiko bat egitea eta, posiblea izanez gero, zenbait gomendio eta proposamen ematea.

Lan hori egiteko eta lanaren garrantzia eta beharra nolabait definitzen duen "esparru instituzionala" deritzona abiapuntu izate aldera, ondoko dokumentu hauetan zahartzearen arloan esaten dena izan du kontuan lan-taldeak:

- Zehartzeari buruzko Munduko Batzarren ondorioak.
- Bizkaian zahartze aktiboa sustatzeko Ekintza Plana.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

TALDEAREN ERAKETA ETA LANEKO METODOLOGIA

Bizkaiko adinekoen kontseiluko kideek berek eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko eta hainbat hedabidetako ordezkariak osatu dute esandako lan-taldea: Radio Popular, Onda Vasca, Deia, El Correo, Canal Bizkaia, Cadena Ser, Grupo Nervión eta Hamaika Telebista.

Arloa jorratzeko eta lana zentratu ahal izateko, bost lan-arlo ezberdin aukeratu ziren:

- Adinekoek gizarte hedabideetan betetzen duten eginkizuna: Komunikatzaile lez duten funtzioa, bai profesional gisa, bai kolaboratzaile gisa.
- Adinekoentzako produktu espezifikoak: Programazioaren espezializazioa edo adinekoen "estereotipazioa"?
- Zahartzaroaren gaineko irudia: zahartzaroaren gaineko irudi positiboa ematea egungo "gizarte irudia" alde batera utzita.
- Adinekoek parte hartzen duten jardueren berri ematea hedabideetan (jarduerak adinekoenak soilik izan zein ez) eta adineko jardueren sustapen publikoa adinekoen euren aldetik.
- Hedabideetan erabilitako hizkera.

Hainbat balorazio, diagnostiko, gomendio eta proposamen egin ziren arlo horiei buruz; izan ere hedabideei zein adinekoei eurei eta jarduerak antolatzen eta adinekoen ordezkaritza duten entitateei dei egiten zaie.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

DIAGNOSTIKOA, GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK

ADINEKOEK GIZARTE HEDABIDEETAN BETETZEN DUTEN EGINKIZUNA: KOMUNIKATZAILE LEZ DUTEN FUNTZIOA, BAI PROFESIONAL GISA, BAI KO-LABORATZAILE GISA.

DIAGNOSTIKOA

- Estatistika daturik ez badugu ere, agerikoa da adinekoek hedabideetan duten presentzia, taldearen tamaina ikusita, beharko lukeena baino txikiagoa dela eta, batez ere, adinekoek duten gizarte kapitalari erreparatuta (jakintza, esperientziak, etab.).
- Presentzia txikia, normalean soilik haiei zuzenean eragiten dieten gaietan.
- Adinekoak nekez agertzen dira eurak baztertu ohi diren ez beste gai batzuetako aditu lez.
- Ezberdintasunak daude prentsa idatziaren, irratia eta telebistaren artean; azken hedabide horretan txikiagoa da adinekoen presentzia komunikatzaile, aurkezle, esatari, kolaboratzaile, etab. gisa, oso programa espezifikoetan izan ezik.
- Krisialdiak jotako zenbait hedabide daude eta, beste enpresa batzuen modura, langilerik zaharrenak kentzen ari dira gazteen kontratu merkeagoen alde. Bizitzako esperientzia horren zati handi bat haiekin batera doa.
- Gero eta teknologia konplexuagoak eta aldakorrakoak erabiltzea mesedegarria da gazteentzat zaharrentzat baino.

GOMENDIOAK

- Adinekoek profesional gisa duten balio erantsia kontuan hartzea, gehienbat esperientziagatik.
- Hainbat lan, artikulu edo programatarako profesional ospetsuak izatea, haien jakintza baliatzeko.
- Elkarrekin eta entitateek solaskideak identifikatzea eta eskaintzea, trebakuntza espezializatuagatik edo bizitzako esperientziagatik balio erantsia eman dezaten haien lekukotasunarekin.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

- Adinekoen presentzia handitzea informazioetan, erreportajeetan, elkarrizketetan, etab.
- Adinekoak baliatzea historia modernoaren "lekuko bizi" gisa (industrializazioa, krisialdi ekonomikoa, etab.), dela hedabideetan, dela ikastetxeetan.
- Memoria historikoko guneak sortzea, memoria berreskuratuta edo historia ahaztea galarazita: herri baten historia, hizkuntza, herri esamoldeak, lan eta ekonomi jarduerak, gizarte ohiturak, bizi izandako erregimen politikoak, jasandako gatazkak... Azken finean, herri baten eta herritarren ohiko bizitzaren ezaugarriak.

ADINEKOENTZAKO PRODUKTU ESPEZIFIKOAK: PROGRAMAZIOAREN ESPEZIALIZAZIOA EDO ADINEKOEN "ESTEREOTIPAZIOA"?

DIAGNOSTIKOA

- Adinekoentzako produktu espezifikoak egiten dira, eskaintza espezializatzeko. Izan ere, batzuetan eta lantzeko moduaren arabera, nahi ez den ondorioa dakarte: adinekoen gaineko estereotipoak sortzea edo ezaugarri batzuetara lerrokatzea.
- Bereziki telebistan programatzen da, eta jakintzat ematen da soilik adinekoen interesekoak diren arloak daudela, edo adinekoak soilik ordu jakin batzuetan baino ez daudela pantailari adi.
- Gurpil zoroak sortzen dira: soilik adinekoen interesekoa da -> adinekoentzako produktuak egiten ditugu -> soilik adinekoek ikusten dute.
- Osasuna, kirola, informazioa, kultura, ekonomia, entretenimendua eta gizarte gaiak unibertsalak dira. Guztien interesekoak dira.
- Inguruabar jakin batzuetan (programa eta profesional zehatzak), haurtzat hartzen dira adinekoak, gonbidaturiko publiko izateko gonbidatzen direnean eta euren bizitza pribatuaren ezaugarriak kontatzera joaten direnean programa ezagunetara.

GOMENDIOAK

- Adinekoen gaineko estereotipoak ez erabiltzea fikziozko produktuetan.
- Adinekoak haurtzat ez hartzea, eta ez eman jakintzat haien hizkerak edo adinak eragin ditzakeen adierazpen zailtasunek maila kultural edo intelektual txikiagoa dakartenik.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

- Estigmatizazioa saihestea adinekoentzako produktu espezifikoak egiten direnean.
- Belaunaldien arteko dimentsioa duten programak edo saioak sustatzea hedabideetan. Bertan hartuko dute parte hainbat belaunalditako kideek guztion intereseko gaiari buruz, belaunaldien arteko "distantziak murrizten" laguntzeko, elkar ulertzeko, adin guztientzako gizartea elkarrekin eraikitzeko, gizarte zuzenagoa eta kohesionatuagoa.
- Programazioa edo saioak hedabideetan balizko "kontsumitzaileen" profilen eta ordutegiaren arabera banatzea oso zentzuzkoa dela onartuta ere, ona izango litzateke adinekoen presentzia edo adinekoei buruzko gaien presentzia zeharkakoa izatea.
- Adinekoak hedabideen kontsumitzaile handia direnez gero, ageriago gelditu beharko litzateke hori hedabideekin batera jarduteko bideak erabiliz: entzulearen telefonoa, zuzendariarentzako gutunak, facebook, twitter...
- Adinekoen interesekoak izanik ere eurei bakarrik dagozkien edo gizarte etiketa estereotipoekin bat ez datozen gaiak, estrategiak eta edukiak proposatzea adinekoen elkarteetan edo entitateetan aldetik.

ZAHARTZAROAREN GAINEKO IRUDIA: ZAHARTZAROAREN IRUDI POSITIBOAREN SUSTAPENA.

DIAGNOSTIKOA

- Gizarteak zahartzeari eta adinekoei buruz duen irudia ez dator bat adinekoen egungo errealitatearekin.
- Guztiok bultzatu dugu irudi hori; adinekoek eurek ere bai, baina gizarteak berak, hedabideak barne direla, ezer gutxi egin du irudi hori aldatzeko.
- Adinekoek kontsumitzaile gisa duten balioaz ohartu egin da gizartea, ordea; edo gizarteko merkatuak behinik behin. Adinekoen inguruan aisia eta kontsumoa dira baloratzen diren bakarrak, dirudienez.
- Irudi estereotipatu eta, beraz, negatibo hori dela-eta, adinekoen belaunaldi oso baten ekarpena galtzen ari gara gizarte mailan.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

- XXI. mendeko zahartzea eta adinekoen eginkizuna eta XX. mendekoak ezberdina izango dira, baina, bien bitartean, egungo aldaketa sozialen eta teknologikoen gaineko beldurra dela-eta, ez dira baliatzen ari belaunaldien arteko komunikazioa eta giza eta bizitzako esperientzia eta ekarpena.
- Adinekoen eginkizuna aldatzen ari denaren frogagarri, irudi hobea ematen hasi direla ikusten dugu. Gero eta gehiago agertzen dira egunkarietan, irratan, telebistan eta Interneten; gero eta adineko gehiagok bidaiatzen dute, lan egiten dute, kirola egiten dute eta ekintza asko egiten dituzte oro har. Hala ere, estereotipo askok bere horretan jarraitzen du.

GOMENDIOAK

- Ez dituzte adinekoak gainerako herritarrenak ez bezalako beharren xedetzat hartzen.
- Interesgarria izango litzateke adinekoen irudi aktiboa lehenestea haien irudi ez hain positiboak barik.
- Adinekoek egungo gizartea eraikitzen izan duten ekarpena jendaurrean agerraraztea (industri garapena, demokrazia berreskuratzea, etab.)
- Bizitza osoan nabarmenak izan diren pertsonaien zahartze aktiboko ereduak aukatzea. Jende hori publizitatea sustatzeko kanpainetako irudia izan daiteke.
- Adinekoek boluntarioen eremuan gizarte eragile lez betetzen duten eginkizunaren balioa nabarmentzea.
- Adinekoak mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta laguntzeko egiten ari diren gizarte funtzioa ikusaraztea (BPG mailan ere bai, dela bikotekidea, dela seme-alabak eta gurasoak. Adinekoek, zaintza behar baino gehiago, mendekotasuna duten beste pertsona batzuk zaintzen dituzte, eta errealitate hori hala dela frogatu daiteke.
- Adinekoen funtzio pedagogikoa baliatzea.
- Bereziki babestea eta zaintzea mendekotasuna duten eta euren burua zuzentzeko gaitasunik ez duten adinekoen irudia (kognizio mailako arazo handiak edo dementzia). Horretarako, berebiziko garrantzia hartzen dute hauek:
 - Irudietarako baimena bermatzea pertsonak agertzen direnaldi guztietan (familienak nahiz zerbitzuetako arduradunenak).
 - Pertsonen pribatutasuna eta intimitatea zaintzea informazioaren tratamenduan.
 - Ezgaitasunak dituzten adinekoen zatiz tratamendu alarmista, errukarri edo morbosoak eta adinekoak haurtzat hartzeko tratamenduak saihestea.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

PROPOSAMENAK

Jarraian, gizarte osoarentzako zenbait gomendio orokorrez gain, hedabideetan eta adinekoen elkarteetan landu litezkeen zenbait proposamen zehatz emango dira, ez bakarrik hedabideentzat edo adinekoen taldeentzat.

- Jardunaldiak, mintegiak edo tailerrak sustatzea informazioaren profesionalentzat, komunikazioaren eta publizitatearen enpresentzat, zahartze aktiboaren eta adinekoen zahartze aktiboaren gaineko jakintza osoa izan dezaten.
- Pixkanaka aldatzea adinekoen egungo elkarte eredua, halako moldez non eredu hori ez baita antolatuko soilik lan egoeraren (erretiratuak), araubide ekonomikoaren (pentsiodunak) edo egoera zibilaren (alargunak) arabera, baizik eta helburua ere badira pertsonak eta herritar izaera oinarri dituzten elkarteak, euren zaletasunak eta interesak, gizarte guztiarentzako helburuak eta xedeak izanik.
- Adinekoen egungo elkarteek euren gizarte inguruan sartzeko "ateak irekitzeko" politikak gara ditzatela, gainerako gizarte elkarteekin batera.
- Herri erakundeek utz diezaiotela adinekoak soilik Gizarte Ekintza Arloko "gai" esklusibotzat hartzeari eta adinekoen gizarte partaidetza osoa ahalbidetu dezatela.
- Zeharkako eta belaunaldien arteko mugimendu horiek balioesten dituzten hedabideak sustatzea, haien ekintzen berri emanez.

ADINEKOEK (EURENAK SOILIK IZAN ZEIN EZ) PARTE HARTZEN DUTEN JARDUEREN BERRI EMATEA HEDABIDEETAN ETA ADINEKOEK EUREN JARDUEREN SUSTAPEN PUBLIKOA EGITEA.

DIAGNOSTIKOA

- Adinekoek hedabideetan duten presentzia urria da, salbu eta ezohiko gertaerak edo berriak direnean, edo soilik "espedientea betetzeko" baino ez diren estereotipoak.
- Berrietan agertzen diren gertaeren tratamendua ez da lagungarria adinekoen gainean ematen den irudia aldatzeko.
- Adinekoei eta adinekoak kide direneko elkarteei "trebezia" falta zaie eurek egiten dituzten jardueren gaineko berriak hedabide ofizialetera behar bezala helarazteko.
- Adinekoek eta elkarteek, egiten dituzten jarduerak ezagutaraztea erabakitzen dutenean, adinekoengana jotzen dute soilik. Euren burua bakartzen dute.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

- Nolabaiteko konformismoa antzematen da elkarteek egun duten egoerarekin.
- Muga horiek gainditzea lortzen denean, gizarteak ez du sentitzen ekintzen hartzailea denik, zeren eta adinekoek buruturiko ekintzak baitira.

GOMENDIOAK

- Etiketarik eta "abizenik" ez erabiltzea jardueren deskribapenetan, interesa jardueraren xedera bideratzeko gehienbat eta ez horrenbeste pertsonarengana. "Zaharren kontuak" marka ez erabiltzea.
- Adinekoen ohiko bizimodua hobeto ezagutarazten saiatzea.
- Aurreko helburuak lortzeko, lehenbizi adinekoen elkarteek jabetu behar dute ona eta beharrezkoa dela haien jarduerak gizarte egoitzaren eremutik kanpora ezagutaraztea. Horretarako, egungo askotariko hedabideak erabiliko dira, ez bakarrik prentsa, irratia eta telebista.
- Elkarteek gizarte ingurunean zabaldu behar dute, haien jardueren berri emanez eta beste talde batzuekin baterako jardueretan parte hartuz, betiere belaunaldien arteko ikuspegiarekin eta gizarte osoari zerbitzua emateko ikuspegiarekin.
- Informazioz gainezka dagoen mundu honetan, kasuan kasuko beharrezko hedabide egokiak erabiltzea, neurritz kanpoko igurikapenik ez sortzea eta egiten dena ez gutxiestea. Intereseko arloak, hartzaile objektiboak eta horiengana iristeko modua aztertu behar dira.

PROPOSAMENAK

- Komunikazio taldeak sortzea adinekoen taldeetan eta komunikazio arduradun bat izendatzea.
- Euskarri informatikoak eta horiek erabiltzen jakiteko euskarriak ematea elkarteei, haien elkarteko jarduerak jakinarazteko eta ezagutarazteko, dela "barne kontsumorako", dela gizarte osoarentzat oro har.
- Ahaleginak egin behar dira hedabideek berriak, iruzkinak, kolaborazioak, etab. bidualtzeko zuzeneko harremanetarako bidea eman diezaieten elkarteetako komunikazio arduradunei.
- Oso baliagarria izango litzateke hedabideek edo prentsa elkarteek berriak eta ekintzak bere bitartekoekin edo beste formula batzuk erabiliz sortzeko eta ezagutarazteko moduari buruzko ikastaroak edo hitzaldiak ematea adinekoei. Internet.
- Adina beste zailtasun bat gehiago deneko jardueretan adinekoek lorturiko lorpenak azpimarratzea; izan ere, pertsona gazteagoen artean nabarmentzea lortzen dute.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

HEDABIDEETAN ERABILITAKO HIZKERA.

DIAGNOSTIKOA

- Zentzu hertsian, 18 urtetik gorakoa da pertsona nagusia, baina adinekoak izendatzeko erabiltzen da.
- Pertsonarekin loturiko adinekoa kalifikazioak, egia esan, egoera edo jokabidea adierazten du adin jakin bat baino.
- Baina "nagusi" kalifikazioa oraindik adinekoa eta agintaria izendatzeko erabiltzen da; agintari adiera hori ez da horrenbeste erabiltzen gaztelaniaz.
- Ez dago irizpide bateraturik 65 urtetik gorako pertsonak definitzeko.
- Maizegi erabiltzen dira termino eta adierazpen globalizataileak eta orokortzaileak adinekoen inguruan, talde homogeneoa izango balitz bezala.
- Lan izaerara ere jotzen da, baina nolabaiteko estigma dakar: jubilatua, aurre-jubilatua edo pentsioduna; klase pasiboak ematen ditu aditzera (gainerakoentzat kostu handikoak).
- Adinekoen "haurrentzako moduko" adierazpenak eta hizkerak ere erabiltzen dira.
- Pertsona bat berri baten xedea denean eta gaztea ez bada, adin hori kalifikatzeko, batzuetan, zentzurik gabeko esamoldeak erabiltzeko joera dago: "40 urteko gaztea", noiz arte gara gazteak?; "65 urteko agurea", noiz gara agure? Ez litzateke nahikoa izango: "40 urteko emakumea", "65 urteko gizezkoa".

GOMENDIOAK

- Pertsonen adina ez kalifikatzea, eta beharrezkoa izango balitz, haiei dagokien izaeraren gaineko aurreiritzirik eman barik egitea.
- Pertsona bat kalifikatzean, garrantzizkoagoa da mendekotasun egoera adina baino. Adinean aurrera egin ahala, gaitasunak eta beharrak aldatzen dira, baina modu ezberdinean pertsona bakoitzarekin.
- Mendekotasuna eta adin nagusiko pertsonak ez lotzea, zeren eta zenbait mendekotasun egoerak gazteei eta helduei ere eragiten baitie.
- 65 urtetik gorako adinak "hirugarren" mailako herritarrak ez hartzea, "hirugarren adina" terminoarekin lotura duela eta.
- Etengabeko prozesu lez onartzea zahartzea, bizitzan gertatzen dena eta mundu guztiari eragiten diona, modu ezberdinean bada ere adinaren arabera. Beraz, ez da hasten 65 urte betetzean.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

PROPOSAMENAK

- Informazio eta publizitateko edukietan erabilitako terminoak berraztertzea eta eguneratzea, zeren eta hitzek kontzeptuak, pentsaerak eta sentitu eta jarduteko moduak adierazten baitituzte.
- Nahikoa adina duten pertsonak definitu beharra badago, ahal dela erabili "adinekoak" terminoa, "zaharrak", "jubilatuak", "pentsiodunak" edo "alargunak" barik.
- Adina kalifikatzea benetan garrantzizkoa den baloratzea, adibidez: mendekotasuna zuen 85 urtetik gorako gizon bat erreskatatuta behar izan zuten suhiltzaileek.
- "Geriatriko" hitza erabili beharrean, "adinekoen egoitza" erabiltzea.
- Konnotazio paternalistak edo adinekoak haurtzat tratatzeko konnotazioko esamoldeak ez erabiltzea hala nola "gure nagusiak", "aitaita-amamak", "agure edo atso zaharrak", etab. Izan ere, maitekiro erabiltzeko asmoarekin bada ere, ez datoz bat adineko pertsona helduarekin eta beren burua gobernatzeko gaitasunarekin.
- Termino globalizatzailen eta etiketen orde, pertsonaren dimentsioari buruzko aipamen nagusia egiten dutenak erabiltzea, gaixotasuna edo muga uneko egoeratzat hartzeko. Mendekotasuna egoera da, ez izaera. Esate baterako, hobe da "gaigabezia duten pertsonak" esatea "minusbaliatuak" baino, edo "dementia duten pertsonak" "zoroak" baino.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

LABURPENA / DEKALOGOA

Eta azaldutako guztia laburbilduz, Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak eta Gizarte Hedabideek, zahartzaroak gizartean duen irudiaren bilakaera positiboan zuzenean inplikatuak eta arlo horretan erantzuleak garen aldetik, hauexek onartu eta adostu ditugu:

1. Adinekoak gizartean kontuan hartu beharreko giza kapitala direla, denboraren joan-etorriak ematen duen bizitzako esperientziaren jabe, eta esperientzia hori datozen belaunaldiei transmititu behar diete.

2. Erretiroak ematen dizkien eskubide guztiak erabiltzeko modua izan behar dute adinekoek; ez dute euren gizartetik baztertu behar eta ez dute gizartetik baztertuak izaten utzi behar. Hori dela-eta, adinekoak gizarte osorako baliagarriak izatea ahalbidetzen duten ekintza guztiak indartu behar dira.

3. Adinekoek, gizarteko gainerakoek bezala, osasuna eta segurtasuna izateko eta parte hartzeko eskubidea izan behar dute, baina euren burua zaintzeko eta parte hartzeko ere bai. Bizi garen gizarteko eragile aktiboak dira.

4. Adinekoek, hedabideen lankidetzan, hedabideetan partaidetza handiagoa sustatzeko bide egokiak bilatu behar dituzte; ez bakarrik eurak ardatz dituzten gaietan, baizik eta hainbat iritzi izateak gizartearen ikuspegi zuzenagoa ahalbidetzen duten bideetan ere bai.

5. Adinekoak talde heterogeneoa dira eta, horrexegatik, hedabideek ez dituzte adinekoen gaineko estereotipo negatiboak sortzen lagundu behar. Horretarako, komenigarria izango litzateke informazioko testuak eta iritziak zaintzea, zetarako-eta, informaziorako baliorik ez duten terminoak eta esamoldeak erabili berririk, adinekoa gizartearentzat ezgai edo karga izatearen gaineko irudia ematen ez jarraitzeko.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

6. Zahartzaroaren eta adinekoen deskribapenak, une honetan, ez digu argi uzten zein terminologia erabili behar den adinekoei dagokienez: adinekoak, nagusiak, zaharrak, etab... Hedabideen eta adinekoen arteko estiloari buruzko eskuliburu adostua egitea lagungarria izango litzateke adinekoekin lotutako estereotipo negatiboak hobetzeko.

7. Gizarte hedabideek zahartze aktiboa aldarrikatzeko lanean parte hartu eta gizartean dagokien eginkizuna eman behar diete adinekoei, zahartze aktiboa guztion ardura dela ikusaraziz, adingabeengandik hasita adinekoenganaino. Hedabideek uneko errealitatearekin bat datorren irudia sortzen saiatu behar dute: pertsona aktiboak, gizartearentzako esperientzia eta informazio garrantzizko handiaren jabe direnak populazioaren, BPG sortzearen eta kontsumoaren aldetik.

8. Adinekoek, banaka edo taldeka, trebakuntza eta sentsibilizazio prozesua garatu behar dute "jabeazteko" eta egiazko gizarte eragile lez jarduteko, adin guztietarako gizarte bat eraikitzen laguntzeko gai diren aldetik.

9. Adinekoen elkarteek informazioaren teknologia berriak eta gizarte hedabideetako bitartekoak (prentsa, irratia, telebista eta IKT) erabiltzen hasi behar dute adinekoen elkarteek. Adinekoek, oro har, eta adinekoen elkarteek, bereziki, parte hartzeko eta laguntzeko elkarrekiko konpromisoak hartuko dituzte.

10. Hedabideek eta herri erakundeek ez dute adinekoa soilik gizarte ekintzaren arloko gaitzat hartu behar; gizartean partaidetza osoa izatea ahalbidetu behar da.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

EPE LABUR ETA ERTAINERAKO EKINTZA PLANA

Azterturiko arlo bakoitzerako gomendatu eta proposaturiko errealitate bilakatzeko, Lan-taldeak ekintza hauek sortzea eta garatzea planteatzen du:

LEHENA:

Adinekoen eta gizarte hedabideen gaineko jardunaldi batzuk sortzea eta garatzea. Jardunaldiotan, hizlariak adinekoak, gizarte hedabideko profesionalak, unibertsitateko adituak izanik, hainbat gai jorratuko dira. Hauexek adibidez:

- Adinekoek Europan duten eredia.
- Adinekoek Euskadin duten irudia – Adineko berriak.
- Nola ikusten dute euren burua islatuta adinekoek gizarte hedabideetan?
- Publizitatea eta adinekoak.
- Sareak eta IKTak, jendetza gizarteratzeko bitarteko gisa.
- Gehiago saltzen al dute adinekoek hedabideetan?
- Esperientziak jakinaraztea zahartzaroko eta zahartze prozesuko aldaketen ildotik.

BIGARRENA:

Tailer edo mintegi bat sortzea eta garatzea adinekoentzat, "Komunikatzen ikastea" de-ritzona, berrien, pentsamenduen eta iritzien sortzaileak eta jakintza eta esperientzien berriemaileak diren aldetik, horiek guztiak gizaritari komunikatzen ikas dezaten. Horretarako, gizarte hedabideak erabiliko dira, edo ez. Xedea:

- Komunikazio teknikak ikastea.
- Komunikaziorako teknologia berrien baliabideen eta tresnen berri izatea.
- "Berriemaileen sarea" sortzea Bizkaiko Lurralde Historiko osoan, adinekoen elkarteetako eta taldeko zuzendaritza batzetako komunikazioko arduradunek eratua.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

HIRUGARRENA:

Adinekoen elkarten eta taldeen hedabideen arduradunen arteko lanerako lotura egonkorra sortzea, "Berri agentzia" gisa jardun dezaten adinekoekin lotutako arlo guztietan: informazioa, iritzia, prestakuntza, zerbitzuak, etab. Hauexek izango dira helburuak:

- Adinekoen eta adinekoen taldeen errealitate osoa hurreratzea gizarteari, zuzenean edota gizarte hedabideak erabiliz.
- "Materialak" sustatzea Bizkaiko adinekoen 2.0 Atarian sartzeko.
- Adinekoen taldeen eta gizarte hedabideen arteko lotura egonkorra izatea.

LAUGARRENA:

Komunikatzaileen eginkizuna bereganatzen duten adinekoen multzoa sortzea eta mantentzea hedabideetan parte hartzeko. Multzo horretan tokia izango dute pertsonekin (lanbidea, zaletasunak, esperientziak, etab.) eta gizarte inguruarekin (kultura, historia, kondairak, etab.) lotutako gaiek. Xedea:

- Adinekoen gizarte eta kultura kapitala aintzatestea.
- Jakintza eta esperientzien transmisioa sustatzea.
- Adinekoen egungo irudia eskaintzea, gizarteratuta dauden gizarte eragile gisa.



ADINEKOAK ETA HEDABIDEAK BIZKAIAN

BIBLIOGRAFIA

Munduko I. Batzarra: Vienako nazioarteko zahartzeari buruzko ekintza plana.

www.gerontologia.org/portal/archivosUpload/Plan_Viena_sobre_Envejecimiento_1982.pdf

Munduko II. Batzarra: Zahartzeari buruzko Munduko Bigarren Batzarraren txostena, Madril 2002ko apirilaren 8tik 12ra.

www.un.org/spanish/envejecimiento/index.html

Nazio Batuak eta Adineko pertsonak.

www.un.org/spanish/Depts/dpi/boletin/olderpersons/

Nazio Batuen printzipioak adineko pertsonen alde.

www.un.org/spanish/Depts/dpi/boletin/olderpersons/princ.html

Adineko pertsonen Nazioarteko Eguna.

www.un.org/spanish/Depts/dpi/boletin/olderpersons/days.html

Bizkaia Adierazpena zahartze aktiboaren alde.

www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/Manifiesto%20Bizkaia%20por%20el%20envejecimiento%20activo.pdf

Ekintza plana zahartze aktiboaren kontuetan.

www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/Plan%20de%20actuaci%C3%B3n%20en%20materia%20de%20envejecimiento%20activo.pdf

Nazio Batuen printzipioak adineko pertsonen alde.

www.un.org/ageing/un_principlessp.html



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ADINEKOAK
ETA HEDABIDEAK
BIZKAIAN